# Mutriku, herri baten historiarako oharrak (I)

*Paulo Gorosabelek zionez, Mutrikuk 1543an ezagutu zuen erreketan galdu zituen nonbait hiriaren agiri zaharrak. Haregatik, ez omen dira ezagutzen bertako ordenantza zaharrak, 1727an berriz egin zirenak baizik, gero 1759an zenbait aldaketa izan zituenak.*

*Hala ere, hiri-bildu sorrerako izendapen agiria ezaguna da, 1237an latinez idatzia, Donostiako foruz 1209an eman zitzaion "carta-puebla" onartuz. Baita ere 1256an bere lurraldeta mugatzez eman zitzaion pribilegioa, zenbait urte geroago birretsia. Zein bata edo zein bestea, Gorosabelen Gipuzkoako* **Diccionario Histórico-Geográfico** *(Tolosa, 1862) liburuaren eraskinean jasoak datoz. Horrez gainera, Gaztelako errege Enrrike II.ak 1374an emandako zerga gutitze eskubideak aipatzen ditu.*

*Geroztik, zenbait erregek agiri horiek berriz onespeitzez aparte, hutsune nabarmena aurkituko dugu Mutrikuren historian, hamaseigarren mendearen azkenaldira arte. Hala ikusten da Agustin Zubikarai adiskideak herri hontaz egin zuen monografia hartan ere.*

*Berrehun urteko hutsune hortan bi agiri soil aurkitu ditut Mutrikuko historiarako jaso beharrezkoak, eta ongi deitzat horien berri ematea.*

*Historiagileen artean oraindik ezta hain erabilia Lope Garcia de Salazarrek XV. mendean oinaz eta banboar taldeei buruz idatzi zuen* **Las Bienandanzas e fortunas** *delako kronika, eta horkoa da agiri bien iturrietako bat. Baina, histori-gintzan ari direnentzat, esan dezadan, Rodriuez Herrerok obra hori argitaratu zuenetik beharrezko iduritzen zaidala bertan begiratzea. Egia esan, Mutrikuz aipamen soil bat besterik ez du; behar_bada bera ere ez hain jakingarria herri honen historiarako, baina bai garaiko gizarte giroa ezagutzeko. Orduan ere baziren maitemin kontuak, amaren semeak munduan diren artean izango direnak, eta hainbat latzgoak dirua hitarte baldin bazegoen.*

*Joan Gautiniz eta bere aita hil ondorean, haren alarguna, aski zahartua, Joan Gonzalez morroi gaztearekin ezkondu eta Mutriku hartu omen zuen bizilekutzat, lehengo senar eta bere gurasoen ondasunez jabeturik. Horregatik, Gautegiz-Arteagatik Mutrikura etorri omen zien 1460. urtean Martin Ruiz Aranzibiako eta Fortun Garzia Arteagako, aitasemeak, eta beren eskuz epaituz hilketa eman* **(Las Bienandanzas e fortunas, XXII. liburua, 93 orria).**

*Beste berria, harri batek duen irakurgaia da. Harri hau Aritzeta dorretxearena da. Duela hogetalan urte erre zen dorretxe hau eta birreraikitzean aldaketa handiak egin ziren bertan. Lehengo ojiba itxurako arquitekturaren parte zaharrarenik bere oinarriak, leiho bikote bat (beste bi birreraikitzean gehituak dira), eta ate ta leiho bat hormaz tapatuak. Hoiek ditu hamabosgarren mendekoak.*

*Dorretxe hontan sortu zen hamaseigarren mendearen azkenaldera Santa Katalina komentua. Bertako nagusi ziren Batxiller Joan Otxoa eta Berriatua eta bere emazte Katalina Plaza izan ziren Aritzeta dorre hau hortarako utzi zutenak eta 1576an Komunitateen begirale zen Alkitzu jauna arduratu zen hortarako egokitze beharren obren zuzendari. Baina, ez zuen asko iraun. Trentoko Kontsilio ondorean, herrietatik aparte zeuden komentuentzat eragozpenak jartzen hasi ziren eta sortzaileen oinordeko ziren Idiakeztarrak 1638an Berriatua dorretxera (gaur egun herrian Zulaingoa deritzana, XV. mendearen azkenaldikoa) eraman zituzten monjak, orain ezagutzen den komentu berria Bonozti zeritzan alorren eraiki arte.*

*Aritzeta dorretxea noizkoa den jakitea oso garrantzizkoa iduritzen zait, Mutrikurako ez ezik baita Gipuzkoaren historiarako ere, ondorean agertuko dudan arrazolagatik.*

*Aritzetan gordetzen den leihopeko harri batean, gotiko letraz irarria dagoenaren arabera, 1470. garren urtean eraikia da, eta oroi 1448an Mondragoko erreketaren ondoan Gaztelako erregeren aginduz Gipuzkoako Hermandadeak 1456an jauntxoen dorretxe guziak bota zituztela, Elgoibarko Olaso eta Eibarko Untzueta izan ezik. Beraz, agindua betetze hartatik hamalau urtera eraiki zen Aritzeta dorretxea eta bertan irakurtzen denetik prebosteraen dorrea izateko. Prebosteengan izaten zen molleetako sartu-irtenen zergaz arduratzea eta kargu hau ere berria dugu Mutrikuko historiarako.*

***Hara hemen hitzez hitz bertan irarria dena:***

***Esta tor^e i.... Ioan***
***m^z prebofte i dna m^a m^s***
***fu muj^r el ano MCCCC LXX***

*Dorre hau... Joan Martinez preboste eta doña Maria Martinez bere emazteak (egina) 1470. urtean.*

*Laburpenak kontuan izanik, horrela irakurriko nuke. Falta diren letrak, uste dut, "izo don" direla.*

*Lastima izan zen dorre honen erreketa, zeren osorik gorde balitz, asko lagunduko zigun garai hartako dorretxeen arkitektura ikertzeko.*

*Dena dela, Garzia Salazarrek kontatzen duena eta Aritzeta dorreko idazkia kontuan hartzekoak dira.*

***Juan SAN MARTIN***

Según el historiador Pablo de Gorosábel, Mutriku debió perder su antigua documentación durante el incendio de 1543; y las ordenanzas municipales que se conservan son de 1727, modificadas en 1759. No obstante, se conocen los privilegios de fueros y términos por transcripción de 1237, que ratifican las de 1209, con fuero de San Sebastián. Así como la delimitación territorial de 1256, además de unas exenciones de 1374 por el rey Enrique II. Todos ellos comentados o transcriptos por el propio Gorosábel. Pero, desde los privilegios que siguieron a la carta puebla, puede decirse que hay un vacío practicamente total en dos siglos de la historia local.

En mi articulo doy cuenta de dos notas dignas para incorporar en ese vacío histórico.

La primera, sobre un suceso criminal de 1460, que trata de un matrimonio de circunstancias. Una viuda que se vuelve a casar en segundas nupcias con un joven mancebo, para que éste la protegiera los bienes procedentes de su primer matrimonio y desde Gauteguiz de Arteaga vienen a morar a Mutriku y que sufrieron una venganza mortal por parte de los herederos del primer marido. (Noticias recogida en el códice **Las Bienandanzas e fortunas).**

La segunda, sobre una inscripción en carácteres góticos que se conserva en la casa-torre Aritzeta (o Arizeta). Esta torre de Arizeta tiene, su importancia reconocida para la historia local. En la misma se fundó el convento de Santa Catalina en 1576, por los entonces dueños Bachiller Ochoa de Berriatua y su esposa Catalina Plaza. Que a los pocos años se trasladó a la villa, primero a la Berriatua (edificio del en la villa se cons gual), provisionalmente el actual convento que redad conocida por cumplimentar las Concilio de Trento, acordó pasar a las tos situados en los la torre de Arizeta, en la base de una ventana piedra se puede leer fecha de erección, bres y cargo de los prebostes Juan Martinez Maria Martinez con en el apellido de la abreviatura "mz" la portante bajo el nuestra historia. Pues que a consecuencia de Mondragón en 1456, el tilla ordenó la demo casas-torres, y la Hermandad la provincia llevaron 1456.

Luego Arizeta los 14 años de apro sitúa entre las torres de Guipúzcoa. Por podía haber construido de estudio arquitectónico veintiuatro años, un destruyó Arizeta y de dravial sólo le quedaba dranguar, una ventana una puerta tapiada y auxiliar de las que se para casos de emergen tapiada, más los restos de ventana ajimezada con dos de Castilla y León y mas y la base de una tana con las mencionadas, pero de estructura no queda nada

# Gasteiz, 1900

*Hile honetan beteko du Gasteizko hiriak bere zortzirehungarren urtebetetzea. Eta hiriaren biziak aurrera darrai, geroago eta indartsuago, hainbeste urtetako zama berarekin ez balihoa bezala. Gasteizera lehen aldiristen den bidalariak hiri berri bat aurkituko du. Kale luzetako auzo zabalak nonahi azaltzen zaizkio ikusleari, den-dena oraindik bukatzeke edo amaitu berria dagoela dirudielarik.*

*Hala ere, ikusle trebeak hiriaren bihotz zaharra aurkitu ahal izango du, pixkat saiatuz gero. Eta erruz agertuko zaizkio, bata bestearen atzetik, gasteiztarrentzat hain maitagarri diren eraikuntza, txoko eta auzategiak.*

*Baina, irakurleak dakien bezala, hiriaren hazkundea ez da bat ere ritmikoa izan. Ez du prozesu historikoan kadentzi berdina erakusten Askok dion legez, Gasteiz urte gutxitan apaizen hiria izatetik industri mota guztietako hiria izatera igaro da. Arabako hiriburuak gaurregun darakusen aurpegiak ez du —esaterako— zerikusi haundirik aurreko mende bukaeran zeukanarekin. Desberdintasuna nabaria da. Urte haietatik zehar ibilaldi bat egitea interesgarri izango zaigulakoan nago. Eraman dezagun, beraz, gogoa 1.900.ra.*

*31.500 genituen urte hartan hirian bizi ziren gasteiztarrak, alkatea* **Federiko Baraibar** *zelarik. Kulturako gizon haundi honek trebetasunez eraman zituen alkateizako betebeharrak.*

*Udalak zeukan diruiturririk garrantzitsuena hirira sarizearengatik kobratzen ziren zergek osatzen zuten. Baraibar jaunak zerbitzua hobeagotu nahian zenbait arau eman zuen. Urte hartan Udalak kaleetan argindarra ipini zuen,* ***"Sociedad Electra Hidráulica Alavesa"*** *elkartearen bitartez.*

*Hasi da beste haro berri bat, hiriari mesede haundiak ekarriko dizkiona.*

*Betidanik izan du osperik Gasteizko eskulangintzak. Gogora dezagun hiriaren sorkundetik azaltzen zaizkigula; horra hor alderdi zaharreko kale izenak. Baina industrigintza lehen urratsak ematen ari da, 1.900.en Gasteizen haren ondorioak sufritzen dituelarik:* ***"Azucarera Alavesa"*** *deritzanak aurrera darama bere projektua:* ***"La Metalúrgica-k*** *nekazaritzarako makineria izango du helburu;* ***"Automóvil Vitoriana"*** *izenekoak berebila du gai;... enpresaririk garrantzitsuenetakoak ditugu. Ba dira beste batzu, txikiagoak izan arren Gasteizko izena beste herrialde eta erresumatara ezagutarazi dutenak.*

*1.900go. Urtarrilaren 1.ean garrantzi osoko eraikuntza bat idekitzen da Gasteizen: Abastu Plaza. Korreria kalean zegoena zaharra gelditzen ari zela eta Udalak berria jasotzea erabaki zuen, bertara Korreria eta Plaza Nueva.ko saltokiak biltzeko .XXgn. mendearen urterik gehienetan probintziako baserritarrek Abastu Plaza hau izan dute asteroko jomuga heuren produktuak bertantxe saltzen baitzituzten. Inguruetako probintziatik iritsitako jarioa ere ez zen txikia izaten.*

*Baina lanak, beti, atsedenari utzi ohi dio txanda eta honetan gasteiztarrek ederki jakin dute ikasgaiak asimilatzen. Ibilaldiak ei ziren garaiko astiematekorik onenak: La Florida, Estación Kalea eta Plaza Los Arcos izenekoak ziren tokirik gogokoenak.*

*Eta, oraindik ba da mailarik!!, jendea ez zen paseiuetan nahasturik ibiltzen. Goimailakoek —dendari, enpresari, apaiz...— alderdi egokiak aukeratzen zituzten, langile, joskin, neskame eta soldaduek heurena zuten biartean. Honez gainera, gasteiztarrek ba zuten nora joizen: Principal eta Circo Antzokiak, dantzalekuak, kaleetako jaiak... Aberatsek Círculo Vitoriano deritzana dute biltoki, bertan joku-gela bat delarik. Maila apalago batek Casino Artista Vitoriano aukeratzen du astia emateko.*

*Gizaldi osoan bizi izandako giro kulturalak ez du, beharbada, bukaeran hainbeste indarrik azaltzen. Dena dela, mugimendua balio haundikoa da oraindik eta, literaturan esaterako, gasteiztar batzuek heuren lanak aurrera ateratzen dituzte. Horra hor* ***Julian de Apraiz, Herminio Madinabeitia, Manuel Díaz de Arkaia, Bizente González de Etxabarri...*** *Bestalde, Ateneoak bere aldizkaria argitaratzen du.* ***"La Libertad"*** *egunkariak hamar urte betetzen du eta Urtarrilaren 31.an* ***"Diario de Alava"*** *azken zenbakia kaleratzen du.* ***"Batasun Katolikoa-Foruak"*** *lemapean argitaratzen zenari* ***"Heraldo Alavés"-ak*** *hartuko dio txanda 1.901.ean. Berrogeitabi musikarik osatzen zuten udal-banda.*

*Plaza de los Arcos.ean eman ohi zituen talde honek bere kontzertuak, eguraldiak La Floridan egitea debekatzen zuenean.*

*Irakaskintzan, berriz, Gasteiz eredu bat izan da. Mende bukaerako azken urtean marianistek, ursulinek, karmelitek... Gasteizen dihardute. Bestalde, Udalak eragindako ikastetxe asko da, hiriko gazteria osoa alfabetatzen delarik. Izen haundiko kultur erakunde bat Arteder Eskola dugu, bere geletatik Gasteizek emandako artistarik ospetsuenak igaro direlarik.*

*Mende bukaerako Gasteizek aurreko urteetako udal-politika on baten fruituak jaso zituen. Hiri maderno izateko lehen harriak jarri ziren XIXgn. mende erdiko urteetan.*

*Ateneoa sortu zen Gasteizko Eliz Barrutia gauzatzen zen batera. Hiriak behar zuen ura Gorbeatik ekartzen da; Magistergo Eskola idekitzen da.. Zer esanik ez, guzti honek bidea erraztu zion Gasteizi XXgn. mendetik abiatzean.*

***Josemari VELEZ DE MENDIZABAL***

No cabe la menor duda de que los años cambian la fisonomía de un pueblo, al igual que lo hacen con las personas. Vitoria ha vivido este cambio de una manera más irregular —ho desequilibrada— que otras ciudades. Ha pasado de tener 31.500 habitantes en 1.900 a casi doscientos mil en la actualidad. Y esto conlleva su tributo.

¿Qué queda de aquel Vitoria de finales de siglo pasado? Varios han sido los estudiosos del tema y, siguiéndoles a ellos, mucho me temo que la capital alava para siempre quilo, romántico. 1.900. ¿Quién no ha alguna ocasión sido de ser una chica de curas a otra que de industria? Seguro eminente hombre fue Federico Baraibar ciudad por entonces imaginarse jamás que eléctrica de los Saltos Abastos, inaugurado año, fuerza a ser cientes $1 años después aquellas empresas de trucción como la Automóvil Vitoriana, la Metalúrgica, riana... pioneras de ción vitoriana. Fábricas queñas compañías "monstruos" de hoy.

La afición de aquella época por Florida, calle de los Arcos... ha sido tipo de pasatiempo dos, si bien personas de un —como entonces dije que todo el mundo

La segunda mitad del marca una fecha pal que avisa a los pasos dentro de una cesis vasca de Vitoria neo, lugar de peregrinaje gencia" vitoriana, que en 1.900 —hablan nio Madinabeitia, Manuel Arcaya, Vicente Gonzalez varri... fueron la inteligencia de la época.